Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urtarrilaren 4a, osteguna — 3 — Jueves, a 4 de enero de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Ataungo 11-EU 11.3 eremuaren Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa.*

*1. Aurrekariak.*

Ataungo Udala 11-EU 11.3 HIEaren hiri-antolamenduko plan berezia tramitatzen hasi da.

Tramitazio horren esparruan, 2017ko maiatzaren 11n, Ataungo Udalak idazkia aurkeztu zuen hiri-antolamenduko plan berezi horren hirigintzako agiriarekin batera, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek erabaki zezan ingurumen-ebaluazio estrategikoa bete behar zuen ala ez.

Ingurumeneko Zuzendaritzak 2017ko maiatzaren 18an erantzun zion Ataungo Udalari, esanez, plan berezi horrek, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta eta abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 6.2.c artikuluan xedatutakoari jarraituz, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua bete behar zuela.

Ataungo Udalak 2017ko abuztuaren 1ean, plan bereziaren ingurumen-agiri estrategikoa igorri zion Ingurumen Zuzendaritzari, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura sinplifikatua burutu dezan.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen-ebaluazioari buruzkoak, 29 eta 32 artikuluen artean ezarritako prozedura horren bidez, ingurumen-organoak, lehenik eta behin, erasandako administrazioei, pertsonei eta instituzioei kontsulta egin behar die, eta kontsulta horien emaitzak ikusita, ingurumen-txosten estrategikoa egin behar du, horren bidez erabakiz, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. eranskinean ezarritako irizpideei jarraituta, planteatutako aldaketak ingurumenean ondorio adierazgarriak eragingo dituen, eta hein horretan, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ohiko prozedura bete behar duen, ala ez duen halako eraginik izango, txostenean bertan ezarritako terminoetan.

*2. Kontsulta erasandako administrazioei, interesdunei eta oro har publikoari.*

21/2013 Legeak 30. artikuluan xedatutakoari jarraituta, eta plan bereziaren ezaugarriei buruzko informazioan eta erasandako lurralde-eremuan oinarrituta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak jarraian adierazitako administrazio eta erakundeak identifikatu ditu interesduntzat eta kontsulta egin die, organo sustatzaileak prestatutako dokumentazioa bidalita:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Kulturako Zuzendaritza.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruko Zuzendaritza.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

— GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza.

— GFAko Obra Hidraulikoen Zuzendaritza.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana de la A.I.U. 11-UE 11.3 en Ataun.*

*1. Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Ataun ha iniciado la tramitación del Plan Especial de Ordenación Urbana de la A.I.U. 11-UE 11.3.

En el marco de dicha tramitación, con fecha de 11 de mayo de 2017, el Ayuntamiento de Ataun presentó un escrito acompañado del documento urbanístico de este plan especial de ordenación urbana para que esta Dirección General de Medio Ambiente determinara si debía someterse a evaluación ambiental estratégica.

Con fecha 18 de mayo de 2017, la Dirección de Medio Ambiente contestó al ayuntamiento de Ataun que, tras el análisis de la documentación aportada y, según lo dispuesto en el artículo 6.2.c de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, el plan especial debía ser objeto de una evaluación ambiental simplificada.

El 1 de agosto de 2017, el ayuntamiento de Ataun ha remitido, a la Dirección de Medio Ambiente, el documento ambiental estratégico del plan especial para que se lleve a cabo el procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada.

A través de dicho procedimiento establecido en los artículos 29 al 32 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, primeramente el órgano ambiental debe realizar consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas y, a la vista del resultado de dichas consultas, emitir un informe ambiental estratégico donde se determine, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, si la modificación produce efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria o no los tiene, en los términos establecidos en el propio informe.

*2. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en la información respecto a las características del plan especial y el ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Agricultura y Desarrollo Rural de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

EK\CV GAO-I-2017-08845

— GFAko Errepideen Zuzendaritza.

— GFAko Errepideetako Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurune eta Klima Aldaketako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolaketa eta Hirigintzako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE.

— URA Uraren Euskal Agentzia.

— Gipuzkoako Ur Kontsortzioa.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.

— GOIMEN. Goierriko Landa Garapeneko Agentzia.

— GOIEKI. Goierriko Garapen Agentzia.

— Sasietako Mankomunitatea.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Ekologistak Martxan.

Era berean, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), publikoak oro har eta interesdun orok egokitzat jotako ekarpenak egin ahal izateko, betiere ingurumen-gaiei buruz.

Horretarako epea amaitu eta txosten hau egin den artean, honako erantzunak jaso ditugu:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzak adierazi duenez, behin kontsultan aztergai jarritako espedientearen dokumentazioa aztertuta, ez dute beharrezkotzat jo horri buruzko txostenik egitea.

— Uraren Euskal Agentziak (URA) adierazi du, pasealekuak Agauntza ibaiaren zortasunaren parte bat hartuko duela eta eraikina ubideen zaingunean kokatzen dela; beraz, jarduketek indarrean dagoen uretako araudian ezarritako mugak bete eta arroko organismoaren baimena behar dituzte. Uholde arriskuari buruz, adierazi du HEA Uholde Arrisku Handiko Eremuen barruan dagoela eta eraikina 100 urtetik 500 urtera arteko errepika aldia duen uholde arriskuko eremuan kokatzen dela.

Zentzu honetan, esaten du Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa baimenak emateko muga batzuk ezartzen dituela (bizitoki erabilera berria bakar-bakarrik onartuko da 500 urteko itzulera aldiko uholde arriskurako kota baino gorago eraikitzen bada, lur azpiko garajeek baimentzeko estankotasuna bermatu eta haizebideak izan behar dituzte, sestra aldatuko duten betelanak ez dira onartuko ezta iragazkorrak ez diren hesiak). Halaber, adierazi du eremua Oria Garaiko KBEan kokatzen dela, gaur egungo sareak daukan baliabideek bizitoki garapenaren ur baliabideen beharrari eutsi diezaioke-

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Gestión y Planificación de carreteras de la DFG.

— Dirección de Movilidad y Transporte público de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Administración Ambiental del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE.

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— GOIMEN. Agencia de Desarrollo Rural del Goierri.

— GOIEKI. Agencia de Desarrollo del Goierri.

— Mancomunidad de Sasieta.

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que una vez analizada la documentación del expediente que se somete a consulta no consideran necesario emitir informe al respecto.

— La Agencia Vasca del Agua URA informa que la ocupación del paseo ocupará parte de la zona de servidumbre del río Agauntza y que el edificio se sitúa en la zona de policía de cauces, por lo que las actuaciones están sometidas a las limitaciones establecidas en la normativa de aguas vigente y que requerirán la autorización del organismo de cuenca. En cuanto a la inundabilidad, señala que el AIU se encuentra dentro de un área con riesgo potencial significativo de inundación y que el edificio estará situado en zona inundable por avenidas de 100 y 500 años de periodo de retorno.

En este sentido, el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrografica del Cantabrico Oriental establece una serie de limitaciones para el otorgamiento de autorizaciones (el nuevo uso residencial solo será autorizable si se construye a una cota superior al periodo de retorno de 500 años, los garajes subterráneos para ser autorizables deben de garantizar su estanqueidad y disponer de respiraderos, no son autorizables rellenos que modifiquen la rasante ni cerramientos o vallados que no sean permeables). Asimismo señala que el ámbito se encuentra en la ZEC del Alto Oria, que estima que el desarrollo residencial

EK\CV GAO-I-2017-08845

tela eta eraikinaren isurketak saneamenduko sistema orokorrarekin lotu behar direla.

— Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak esan du bi erakunde hidraulikoak (autonomikoa eta estatukoa) egin behar dituzten bi txostenen jakinarazteaz URA ardurako dela.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak adierazi du herri babeserako arriskuak ez direla antzeman, 100 urteko itzulera aldiko uholde arriskurako eremuan dagoen lursailaren kokapenari dagokiona izan ezik; beraz, erakunde hidraulikoak ezarriko dituen baldintzak kontuan hartuko dira.

— IHOBEk esan du eremuan ez direla agertzen irailaren 30eko 165/2008 Dekretuan sartutako lursailak. Guztiarekin ere, lurzoru kutsadura-zantzurik aurkituz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi behar zaio.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak jakinarazi du Ingurumen Agiri Estrategikoan natura ondareari buruzko egindako azterketa egokia dela eta uren kalitatearen gainean eragina sahiesteko proposatutako babes neurriak lotesleak izan behar direla urbanizazio proiekturako.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Departamentuaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak esan du inguruan urbanizatzeko ekintzen programak kontuan hartuko duela espazio publikoaren diseinu egokia, kalitate akustikoa bermatzeko beharrezko neurriak, erradiazio elektromagnetikoei buruzko araudiaren betetzea, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak, eta legionelosia prebenitu eta kontrolatzeko araudia.

Erantzunak Ataungo Udalera bidaliko ditugu ingurumentxosten estrategikoarekin batera, eta gerora beste erantzunen bat jasoko bagenu, hori ere Udalera bidaliko genuke ahalik eta lasterren, plan berezia idazteko eta tramitatzeko lanetan aintzat har dezaten.

*3. Hiri-antolamenduko plan bereziaren deskribapena.*

Plan bereziak honako helburuak ditu:

— Ataungo Arau Subsidiarioetan 11 HIE hirigintza-jarduerarako eremuko 11.3 EU exekuzio-unitateari dagokionez egindako aurreikuspenak gaurkotzea, egun indarrean dagoen hirigintzako araudira egokituz.

— Unitate horretan aurreikusita zegoen eraikinaren eraikuntza-lanei jarraipena ematea. Lanak geldiarazi egin ziren krisialdi ekonomikoaren ondorioz.

Ataungo Arau Subsidiarioen testu bategina 2005eko urriaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz behin betiko onartu zen. Agiri horretan hiri-lur eremuen antolamendu xehatua ezartzen zuen, eta horien artean, 11 HIEari eta haren 11.3 EUari dagokiona.

Arau Subsidiarioetan 11.3 EUrako egindako proposamena, funtsean, lehengo eraikina deuseztatu eta beste batekin ordezkatzea izan zen, eta horretarako, IV(a)/I profila definitu zen, eta 12 etxebizitzako eskaintza proposatu zen. 1.593 $m^2$(t)-ko eraikigarritasuna baimendu zen eta 100 $m^2$(t)-ko azalera saltokierabilerarako, baita ere, sestraz azpiko aprobetxamendua sotoko solairu batean garaje-erabilera emateko. Lehengo eraikinarekin alderatuta, eraikin berriaren lerrokadura atzeratu egin zen bidetik, eta horrek bidea zabaltzea ahalbidetu zuen eta 2 metroko espaloia sortzea, hala oinezkoen zirkulazioa ere nabarmen hobetuz. Era berean, lerrokadurak Agauntza errekatik banantzeko gutxienez 5 metro utziko zela ezarri zuten Arau Subsidiarioek.

Plan berezian ere bere horretan jarraitzen dute Arau Subsidiarioetan ezarritako oinarrizko irizpideek, hala nola eraikigarritasunak –1.693 $m^2$(t)–, eremuaren azalerak (1.337 $m^2$) eta etxebizitza-kopuruak, baina sotoko solairua handitzea aurreikusita dago, eta horretarako beharrezkoa da eraikinaren

puede amparar sus necesidades de recursos hídricos en los recursos con los que cuenta la actual red, y que los vertidos del edificio debe de conectarse al sistema de saneamiento general.

— La Confederación Hidrográfica del Cantábrico indica que la URA se encargará de notificar los dos informe elaborados por las dos administraciones hidráulicas (autonómica y estatal).

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del GV informa que no se han detectado riesgos de protección civil significativos, salvo la situación de la parcela en la mancha de inundación de 100 años, por lo que se tendrá que tener en cuenta los condicionantes que establezca la administración hidráulica.

— IHOBE señala que en el área no se encuentran parcelas incluidas en el Decreto 165/2008, de 30 de septiembre. No obstante, en el caso de detectarse indicios de contaminación de suelo, se deberá de comunicarlo a la Viceconsejería de Medio Ambiente.

— La Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del GV informa que el análisis elaborado en el Documento Ambiental Estratégico sobre los efectos al patrimonio natural es acertado y que las medidas de protección propuestas para evitar la afección a la calidad de las aguas deben de tener carácter vinculante para el proyecto de urbanización.

— La Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del GV comunica que el programa de actuación urbanizadora del ámbito deberá de tener en cuenta un diseño adecuado del espacio público, las medidas necesarias para asegurar la calidad acústica, el cumplimiento de la normativa sobre radiaciones electromagnéticas, la eficiencia energética y las energía renovables, y la normativa sobre prevención y control de legionelosis.

Las respuestas, junto con informe ambiental estratégico, serán remitidas al Ayuntamiento de Ataun, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida al Ayuntamiento en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del plan especial.

*3. Descripción del plan especial de ordenación urbana.*

Los objetivos de plan especial son:

— Adecuar a la normativa urbanística vigente las previsiones que las Normas Subsidiarias de Ataun –NNSS en adelante– efectuaron para la unidad de ejecución UE 11.3 de la A.I.U. 11.

— Dar continuidad a las obras de construcción del edificio previsto en la unidad que quedaron paralizadas debido a la crisis económica.

El texto refundido de las NNSS de Ataun fue definitivamente aprobado por acuerdo del Consejo de Diputados de 18 de octubre de 2005. Dicho documento establecía la ordenación pormenorizada de las áreas de suelo urbano y, entre éstas, de la A.I.U. 11 y su UE 11.3.

La propuesta efectuada en las NNSS para la UE 11.3 consistió en la eliminación del edificio existente y su sustitución por otro, para el que se definió un perfil de IV(a)/I y se propuso una oferta de 12 viviendas. Se permitió una edificabilidad de 1593 $m^2$(t) y 100 $m^2$(t) de superficie de uso comercial, así como el aprovechamiento bajo rasante en una planta de sótano destinada al uso de garaje. En comparación al edificio preexistente, la nueva edificación retrasó su alineación con respecto al vial, lo cual permitió la ampliación viaria y la creación de una acera de 2 metros para mejorar sensiblemente la circulación peatonal. Asimismo, las NNSS establecieron que las alineaciones se separarían como mínimo 5 metros del río Agauntza.

El plan especial mantiene los criterios básicos establecidos en las NNSS, tales como edificabilidad –1.693 $m^2$(t)–, superficie del ámbito (1.337 $m^2$) y número de viviendas, pero se prevé la ampliación de la planta de sótano, lo que hace necesario la definición de nuevas alineaciones para el edificio y un aumento

EK\CV GAO-I-2017-08845

lerrokadurak berriro definitzea eta erabilera publikoko zortasuna lursail pribatu baten azalera handiagoan ezartzea. Aurreikusitako erabilera xehatuak honakoak dira:

— Eraikuntza irekiko bizitegi-lursaila (a20): 687 $m^2$.

— Espazio libreak (F.10): 248,10 $m^2$.

— Bide eta errepideak (E.10): 401,30 $m^2$.

Hirigintzako Jarduketa Programa (HJP) idatzi behar da eta birpartzelazio-proiektua ere bai, onurak eta zamak ekitatez banatzea bermatuz eta titulartasun publikoko lurzoruen lagapena gauzatuz, zeinak behar bezala urbanizatuak izango diren hirigintza-proiektua edo hori ordezkatzen duen figura idatzi ondoren. Eraikuntzarako beharrezkoa izango da dagokion eraikuntza-proiektua. Biak, hirigintza eta eraikuntza, aldi berean exekutatuko dira.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotako irizpideetan oinarritutako analisia.*

11.3 EU exekuzio-unitatea Ataungo San Martin auzoko herriguneko Elbarrena auzoko kalean dago. Mendebaldeko mugan Agauntza ibaia eta haren ibaiertzeko pasealekua daude; ekialdean, GI-120 errepidea eta etxebizitzen eraikinak; eta iparraldean eta hegoaldean, etxebizitzen eraikinak. Area honetan gaur egun amaitu gabeko bizitegirako eraikin baten egitura dago eta hormigoizko plataforma bat.

11.3 EU exekuzio-unitatea erabat urbanizatutako zona bat da, interes naturalistiko bereziko eremu batean dago –Oria Garaiko kontserbazio bereziko eremua (KBE)– eta halako beste bi ditu inguruan: Aralarko KBEa eta parke naturala.

Ondorioz, jarduketak eremu babestu horietan izan litzakeen balizko ondorioak deskribatuko ditugu jarraian:

Oria Garaiko KBEan bilduta dago 11.3 EUaren atzealdetik igarotzen den Agauntza ibaiaren zatia, eta horri dagokionez, kontserbatu beharreko elementu giltzarriak honakoak dira:

— Ibai-korridore ekologikoa: EAEko korridore ekologikoen sarearen barruan, konektore gisa interes berezia dutenen artean sartzen da ibai-tarte hau, Natura 2000 Sarearen koherentziari eta konektagarritasunari ekarpena egiten diola iritzita.

— Ibaietako habitatak, erriberako haltzadiak eta Kantauri azpiko lizardiak (habitat kodea: EU.91E0*). Plan bereziaren eremuan, ezkerreko ibaiertza –jarduera-eremuaren parean kokatua– interes komunitarioko habitat honek okupatzen du, gehienean neurri handiko haltzez osatua, nahiz eta sasiakaziak (Robinia pseudoacacia), makalen bat (Populus x canadensis) eta pikondoak (Ficus carica) ere agertzen diren puntualki. Halere, eskuineko ibaiertza ubideratuta dago, 3 metrotik gorako altuera duten harri-lubetekin, eta ez du apenas landaretzarik, interesekoak ez diren espezie erruderal eta nitrofiloak agertzen dira soil-soilik.

— Mustela lutreola (europar bisoia). 2004ko maiatzaren 12ko Foru Aginduak, zeinaren bidez onartzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoan europar bisoiaren (Mustela lutreola) kudeaketa-plana, espezie horrentzat intereseko areen artean sartzen du plan bereziaren eremutik igarotzen den Agauntza ibaiaren zati hau.

— Parachondrostoma miegii (loina) eta arrain komunitatea.

— Ibaietako hegazti fauna: Cinclus cinclus (ur-zozoa), Alcedo atthis (martin arrantzalea), eta ibai-bazterretako beste espezie batzuk.

URAren egoera kimiko eta biologikoaren jarraipenerako sarearen arabera, Agauntzak gune honetan egoera ekologiko, biologiko eta kimiko ona du, eta bere egoera globala ona da.

Ingurumen-agiri estrategikoan plan bereziak Oria Garaia KBEan izan ditzakeen ingurumen-eraginei buruzko balorazioa egiten da, eta hortik ateratako ondoriorik esanguratsuenak hauexek dira:

de la superficie de parcela privada gravada con servidumbre de uso público. Los usos pormenorizados previstos serán:

— Parcela residencial de edificación abierta (a20): 687 $m^2$.

— Espacios libres (F.10): 248,10 $m^2$.

— Viales y carreteras (E.10): 401,30 $m^2$.

Se redactará un PAU y un proyecto de reparcelación que garantice la equidistribución de los beneficios y cargas, y materialice la cesión de los terrenos de titularidad pública, que serán debidamente urbanizados tras la redacción del proyecto de urbanización, o figura que lo sustituya. La edificación requerirá el correspondiente proyecto de edificación. Ambas, urbanización y edificación se ejecutarán simultáneamente.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

La Unidad de Ejecución U.E. 11.3 está ubicada en la calle Elbarrena auzoa del núcleo urbano del barrio de San Martín de Ataun. Linda por el oeste con el río Agauntza y un paseo junto al río; al este, con la carretera GI-120 y edificios de viviendas y, al norte y sur, con edificios de viviendas. El área esta ocupada actualmente por la estructura de una edificación residencial pendiente de acabar su construcción y una plataforma de hormigón.

Aunque la Unidad de Ejecución U.E. 11.3 es una zona totalmente urbanizada, se encuentra dentro de un ámbito de especial interés naturalístico –Zona de Especial Conservación (ZEC) del Alto Oria–, y en la proximidad de otros dos de ellos: la ZEC y parque natural de Aralar.

En consecuencia, a continuación, se pasará a describir los posibles efectos de la actuación sobre estos espacios protegidos.

El tramo del río Agauntza que pasa por la trasera de UE.11.3 está incluido en la ZEC de Alto Oria, cuyos elementos clave objeto de conservación son los siguientes:

— El Corredor Ecológico Fluvial: dentro de la Red de Corredores ecológicos de la CAPV, se incluye este tramo fluvial entre los de especial interés conector. Se considera que contribuye a la coherencia y conectividad de la red Natura 2000.

— Hábitats Fluviales, Alisedas riparias y fresnedas subcantábricas (Hábitat Cod.UE. 91E0*). En la zona del plan especial, la margen izquierda del río –situada enfrente del ámbito de actuación– está ocupada por este hábitat de interés comunitario, formado mayoritariamente por alisos de gran porte, con presencia puntual de falsa acacia (Robinia pseudoacacia), algún chopo (Populus x canadensis) e higueras (Ficus carica). Sin embargo, la margen derecha del río se encuentra canalizada, con muros de escollera de más 3 m de altura y apenas cuenta con vegetación, estando ésta reducida únicamente a especies ruderales y nitrófilas carentes de interés.

— Mustela lutreola (visón europeo). La Orden Foral de 12 de mayo de 2004, por la que se aprueba el plan de gestión del visón europeo (Mustela lutreola) en el Territorio Histórico de Gipuzkoa incluye, dentro de las áreas de interés especial para esta especie, el tramo del río Agauntza que pasa por la zona del plan especial.

— Parachondrostoma miegii (loina) y la comunidad íctica.

— Avifauna de ríos: Cinclus cinclus (mirlo acuático), Alcedo atthis (Martín pescador), y otras especies de aves de riberas fluviales.

Según la Red de seguimiento del estado químico y biológico de URA, el Agauntza en esta zona presenta un estado ecológico, biológico y químico bueno, siendo su estado global bueno.

En el documento ambiental estratégico, se realiza una valoración de los efectos ambientales que el plan especial puede tener sobre la ZEC Oria Garaia/Alto Oria, cuyas conclusiones más relevantes son las siguientes:

EK\CV GAO-I-2017-08845

— Plan bereziak ez du aurreikusi eraikitako azalera handitzea ezta ere eremuaren ezaugarri fisikoak aldatzea, eta Agauntza ibaiaren ibilguan esku hartzea ere ez. Ondorioz, ez da aurreikusten zuzenean kalterik sortzea ibaiari, edota ibaiari lotutako fauna-espeziei, edota haltzadiari, zeina, esan bezala, beste ibaiertzean kokatzen baita.

— Halere, espezientzako habitataren kalitatea erasana gerta liteke, eraikinaren eraikuntza-lanak eta hirigintza-lanak egin bitarteko zeharkako eraginengatik, uraren kalitatearen galeragatik, zarata-maila handitzeagatik eta hautsa barreiatzeagatik. Kalte horiek gutxienera murrizteko eta/edo saihesteko, ingurumen-agiri estrategikoak neurri zuzentzaileen sorta proposatu du.

— Funtzionamendu-faseari dagokionez, ez da uste izatekoa bizitegirako erabilera berriak kanpoaldean zarataren igoera adierazgarria eragitea eta hein horretan intereseko faunarentzako habitaten kalitatea murriztea, espero izatekoa baita eraikina bera GI-2120 errepideak sortutako zarataren zati baten pantaila izatea. Bestalde, ibilgailuak eraikinaren garajera sartzeko bidea GI-2120 errepidean kokatuko da –Oria Garaiko KBEaren mugetatik kanpo kokatua– eraikinaren beheko solairuan egindako arranpa baten bidez, eta hori halaber pantaila gisa baliagarri izango da ezkerraldeko haltzadiari dagokionez argi-kutsadura saihesteko. Horregatik guztiagatik, ez dirudi egoiliarren eta eraikinera sartuko diren ibilgailuen gorakadak faunaren gainean traba adierazgarriak sor ditzakeenik, ezta ere zarata gehiagogatik eta argi-kutsaduragatik beraien habitataren kalitatearen endekapenik ere.

Laburbilduz, ingurumen-agiri estrategikoak dio plan bereziak ez duela eraginik izango Oria Garaiko KBEan.

Era berean, 11.3 EUren parean, mugatzat duen GI-2120 errepidearen beste aldean, beste eremu babestu bat dago: Aralarko parke naturala, 169/1994 Dekretuaren bidez hala izendatua. Parke horren natura-baliabideak antolatzeko planak (NBAP) –169/1994 Dekretuaren bidez onartua– dioenaren arabera, GI-2120 errepidearen ondoko area hori NBAPak «Hiri-eremuak eta Azpiegiturak» izendatzen duen multzoko zona bat da, eta halakoetan aplikatu beharreko araudia erasandako udalerri bakoitzaren arau subsidiarioei dagokiena da eta lehendik definitutako azpiegituretan aplikatzekoak diren legeei dagozkienak.

Bestalde, maiatzaren 31ko 84/2016 Dekretuaren bidez, Aralar Kontserbazio Bereziko Eremu (ES2120011) izendatu zen, eta haren mugaketa, Dekretuaren I. eranskinean jasotako kartografian bilduak, funtsean bat dator izen bereko parke naturalarekin. Halere, eranskin horrek naturgunearen babeserako eremu periferikoa ere jasotzen du, EAEko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak, 19.2 artikuluan dioenarekin bat etorrita. Bere garaian parke naturalaren NBAPak bereizi ez zuen eremu periferiko hori ekologian eta paisaian kanpoko inpaktuak saihesteko ezarri da, eta bere barnean hartzen du 11.3 EUa oso-osorik. 19.2 artikuluak dio halako eremuotan helburuak bete ahal izateko beharrezko mugak ezar daitezkeela.

Plan bereziak planteatutako jarduketek Aralako Kontserbazio Bereziko Eremuko kontserbatu beharreko elementu giltzarrietan izan lezaketen balizko inpaktua aztertzean, zera ondorioztatu dezakegu:

— Interes komunitarioko habitatak. Kontuan hartuta 11.3 EUa erabat urbanizatutako gune bat dela, ez da aurreikusten inolako eraginik ez baso-eraketetan –gorostiz eta haginez osatutako oihanpedun pagadi azidofilo atlantikoak (EU kodea 9120), Quercus Ilex eta Q rotundifoliaren artadi kantauriarra (UE kodea 9340), pagadi basofilo edo neutroak (GI-64), Querqus robur nagusitzen deneko harizti azidofiloak eta mesotrofoak (GI-86)– ez larre eta eraketa belartsuetan –6170, 6210, 6230*, 6430, 6510, 7210* eta 7140 eta 6510–. Bestalde, 91E0 habitataren –Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior-eko baso alubia-

